



Kultura balioan jartzeko borondatea

Urnietako Udalak eta kultur eragileek, elkarlanean, kultur ekitaldiak berme guztiekin antolatu daitezkeela erakutsi dute / 2-3

Trikuharria Onddiko magalean

Urnietako Artzaienea baserrian bizi den Igor Jauregi "Gartxot"ek egin du trikuharria izan daitekeen aurkikuntza. / 16

Imanol Ansa erremontista, lehiarako prest

Erremontea izanen da pilota munduan lehiaketara itzuliko den lehen kirol jarduera. Ekainean bertan izango da, eta Ansak Oriamendi enpresan jarraituko du. / 12



Ospakizuna Andoaingo Berrozpeko kaperan, Ama Kandidaren jaiotzaren 175. urteurrenean / 8-9



Lankidetza hitzarmena sinatu dute Larramendi Bazkunak eta Andoaingo Udalak / 15



Andoaingo Udalak skateparkean eta herriko frontoietan kirol jarduerak egiteko baimena eman du / 13

Txanbolin txistulari elkarteak



Taldeko lau kidek Agurra dantzatu zuten, kalejiran irten aurretik. AIURRI

Kalejira, Gazte Festak balira bezala Aurreko urteetako ohiturari jarraituta, Txanbolinoko kideek igande goizeko ohiturari heldu zioten. 10:00tan hasita abiatu ziren. Eta ez bi, lau edo sei txistulari. Hamahiru kide izan ziren denera.



Geltoki alderako bidea hartu zuen taldeak, plazatik irten eta gero. AIURRI

Estreinaldia eta guzti Kulturak eta sorkuntzak ez du etenik, eta Txanbolinena adibide argiena da. Idiazabal kalera iristean taldeak Antton Jauregik sortutako "Idiazabal kalea" pieza estreinatu zuen.



Lehen planoan Irati De Torres, atzean Ana Elustondo. AIURRI

Txistua eta dantza Irati De Torres eta Ana Elustondo Txanbolin taldeko kideak izateaz gain, Egape dantza taldeko kideak ere badira. Zubitxo plazan, gainerako kideek musika egiten zuten bitartean, dantza saio ikusgarria eskaini zuten.



Hamahiru kideekin abiatu zen Txanbolin txistulari taldearen kalejira. San Juan plazatik abiatu ziren, Agurra dantzatu eta jo ondoren. Kalez kale ibili ziren, gero. AIURRI

Kultur ekitaldiak kalean, bigarren fasean

Historiarako geratuko da 2020ko udaberriko festa ospatzeko aukera izan zela, nahiz eta bere osotasunean izan. Jaiaren eta ospakizunaren aldeko haria ez da eten, herriko elkarteen eta Urnietako Udalaren lankidetzari esker.

Jon Ander Ubeda URNIETA

Maiatzaren 31n kultur egitarau txikia aurrera eramateko aukera izan zen, segurtasun eta higiene mailako arau guztiak beteta. Eta hori posible izan zen herriko taldeen eta Udalaren arteko lankidetzari esker. Kezka eta zalentza etengabea izan zen, ziurrenik, egitarau txiki hori prestatzeko bilkura ezberdinetan. Baina irizpide nagusietakoa kultur bizitzari jarraipena ematea izanik, Koronabirusak eragindako zailtasunei aurre egiteko antolaketa lana biderkatu egin zen. Eta horrela iritsi ziren maiatzaren 31ra. Ez bi, ez lau, ez sei. Hamahiru musikari elkarrekin aritu ziren kalejiran. Hamahiru! Dantzariak ere ez ziren talde txikiagotatik ibili. Hamabost San Juan plazan, hamabost!

Urnietakoan egindakoa San Juan jaiak eta udako beste ospakizun batzuk egiteko gida modukoa bihur daitezke. Borondatea izanez gero, posible da.

Udalaren balorazio ona

"Herriko kultura bizirik dagoela erakutsi zen Gazte Festak ospatu behar ziren asteburuan", Urnietako Udalaren balorazio-oharraren hasiera da hori. Eta kultura erdigunean jarritzaz jarraitzen du, ohar berean: "Alde batetik, helburu nagusia bete zen, egoera zail honetan herri-tarrak animatzea, eta era berean, herriko kultura eta elkarteak balioan jartzea. Eta bestetik, ekintzak segurtasun neurriak errespetatuta eta inongo arazorik gabe gauzatu ziren. Beraz, Udalak eskerrak eman nahi dizkie kalean paseatzen ari zirenean ekimen hauekin topo egin zuten herritarrei, eta be-

reziki ekitaldietan parte hartu zuten Egapeko dantzariak, Txanbolinoko musikariei eta bertso eskolaketako kideei".

Maiatzaren 31n ikusi zena alde aurretik landutako prozesu baten emaitza izan da; "Koronabirusaren ondorioz apirilaren erdian Gazte Festak bertan behera uztea erabaki eta gero, deseskalatze prozesuan aurrera egin zen heinean eta neurriak arindu ahala, Kultura sailetik maiatzeko azken astebururako ekintzaren bat antolatzea egoki ikusten zuten galdetu zitzaizkien herriko elkarteei. Elkarteen erantzunak aztertuta, prestutasuna erakutsita zuten elkarteekin antolatu zen igandeko egitaraua".

"HERRIKO KULTURA BIZIRIK DAGOELA ERAKUTSI ZEN IGANDEAN"

URNIETAKO UDALA

"HELBURU NAGUSIA HERRIKO KULTURA ETA ELKARTEAK BALIOAN JARTZEA IZAN ZEN"

URNIETAKO UDALA



Eguerdiko 12:00tan hasita eta ordu erdiko epean, Egape dantza taldeak bost dantza saio eskaini zituen beste hainbeste plazatan: San Juan plaza, Etxeberri plaza, Lizardiko plaza, Zaldundegi plaza eta Zubitxo plaza. AIURRI



Adin ezberdinetako dantzariak parte hartu zuten igandeko dantza emanaldietan. AIURRI



Plaza bakoitzean Udal langileak izan ziren egoera kontrolatzeko, Udalak zabaldutako oharraren arabera. Zera gaineratu dute: "Dena primeran irten zen, lekuan bertan eta balkoietan jendea batu zen arren, ez zelako inongo pilaketarik izan". AIURRI



Udalak ospakizunen aldeko sentsibilizazio kanpaina egin zuen. AIURRI

Mezuak leiho eta balkoietan

“Gazte Festak 2020 Gora Urnieta” esaldia zeramatzaten afitxak banatu zituen Udalak, herriko hainbat tokitan. Ekimenean parte hartu zuten herrikideek horiek hartu eta kolorez eta margoz bete zituzten. Egape dantza taldeak ere, bere aldetik, taldearekin lotura duten elementuak erakusteko deialdia luzatu zuen.



Egape dantza taldeko kideek ere balkoiak eta leihoak apaindu zituzten. EGAPE

Ikasleen bertso-sorta

Urnietako Udalaren Youtube kanalean entzungai dago igandeko bertso saio berezia. Ikastetxe ezberdinetako kideen parte hartzearekin hasten da, eta amaiera bertso eskolako kideek ematen diote. "Habanera"ren doinuuan, nagusiek honako bertsoa bota zuten. Puntuz puntu, 8 kideren artean osatutakoa: Ze ondo maskarillekin, egunik beroenetan, Ondo ezin hitz egin ta denak izerdi patsetan. Bozala hobe legoke zenbaitzuen musuetan, baina jar gaitzezen baikor garairik ilunenetan. Bizi poza badugula erakutsiaz benetan, alperrik da ibiltzea nahigabea ta penetan, ea denok hasten geran normal gure bizitzetan, bukaera on bat pentsatzen nengon azken egunetan

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

NEREA ENCINAS, ANA MAZON ETA LEIRE IBARBIA URNIETA

Puntako kiroldegi berria etorkizunerako?

Ekainaren 2an udaletxean 1.132 sinadura aurkeztu genituen, Urnietako herritarrek kiroldegi berri bat taberna-kafetegitik gabe, eta igerileku estalirik gabe nola egin daitekeen ez dutela ulertzen jakinarazteko.

Ez gara inongo alderdi politikoko partaide, Urnietako biztanleak baizik: Nerea Encinas, Ana Mazon eta Leire Ibarbia gara. Badakigu ez direla garai onenak proposamen honek aurrera egiteko, baina sinadurak COVID-19 pandemia baino lehen lortu genituen, eta pandemiak sinadurak Udaletxean orain arte aurkeztea ezinezkoa egin du. Gainera, faseak pasatzen joan garen moduan, Urnietako ez dute baloratu herri txiki moduan 5000 biztanle baino gehiago dituelako, eta metro karratu bakoitzean jende asko bizi delako.

"Vending" makinak taberna-kafetegiaren ordez? Non dago janari osasungarria? Badakigu azkeneko urteetan inguruan kiroldegietako tabernak kendu eta "vending" makinak jarri direla. Bitartean, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza janari osasungarriak daukan garrantzia bultzatzen ari dira biztanle guztiei, iragarkien

bidez. Umeei begira, batez ere, haiek txikitatik ohitura onak hartzeko. Ikastoletan ere hitzaldi eta jolasen bidez umeei txikitatik erakusten ari zaie kirolak eta janariak daukan eragina osasunean. Orduan, jarrai dezagun bide horretatik denok.

Gure herrian eskola kirola, eskubaloia, futbola, gimnasia, judoa, tenisa etb... ume askok egiten dute eta partidak bukatu ondoren ohitura handia daukate ogitarteko edo pintxo bat jateko. Orain ezin izango dute hori egin, kiroldegi berriko "vending" makinetan donutsak, palmerak eta beste egongo direlako. Zentzurik ba al dauka kirola egin eta gero azukrez beteriko *txerrikeriak* bakarrik eskaintzea??

Herritarrek ez dute Urnietako logela hiri bat izaten jarraitzea nahi Horregatik, igerileku estaliak ere garrantzi handia dauka. Herriko komertzioari bultzada emateko aukera ona izango litzateke, COVID-19aren pandemiak gogor astindu dituen komertzioak. Inguruko herrietara joaten bagara urteko bederatzi hilabetetan igerileku estalia erabiltzera, beste herrietan egingo ditugu erosketak. Azkeneko urteetan Udala herrian komertzioa

bultzatzen ari denez, igerileku estalia beste aukera bat da herria bultzatzeko, eta bertan erosketak egiteko, herritik atera gabe.

Igeriketaren onurak urte osoan zehar aprobetxatu Igeriketa, igerileku irekiekin eta itsasoarekin erlazionatu ohi dugu. Hala nola, igeriketa ez dugu soilik udako hilabeteetara mugatu behar. Izan ere, hori eginez gero igeriketak ematen dizkigun onura asko gal genitzake, eta ez gara konturatzen igeriketak edo igerilekuan ariketak egiteak gure gorputzean daukan onura baliotsuak. Herritar guztientzat izango litzateke onuragarria, gainera, 0 urtetik 99 urte bitarte.

Jarraian igerileku publiko bat egitea interesgarria zergatik den aipatuko dugu, oso garrantzitsua den erabaki hau laguntzeko helburuz.

Askotan, instalazio publikoak familiek eta lagunek disfrutatzen leku gisa bilatzen dira. Horrela, udan dagoen beroari aurre egiteko espazio publiko bat izateak duen abantailaz gain, badaude beste hainbat arrazoi:

- Udalerriko bizilagun guztien arteko erlazioa hobetzeko.
- Eraikinen bidez herriari ematen dioten balorea, bizilagun gehiago erakarritza.
- Bizitza osasuntsua. Kirola egitea egunerokotasun errutina bilakatu da, horrela dieta eta fisikoa mantenduz:
 1. Mugimendu ahalmena areagotzen du.
 2. Garunaren hobekuntza: Kalteturik dauden neuronak erreparatu.

- Funtzio kognitiboa hobetzen du. Antsietatea eta depresioa murrizten ditu. Memoria garatu. Ikasketan hobekuntza.
3. Kalaria kopuru handiagoa erretzea.
 4. Gure gorputza erresistenteagoa egitea.
 5. Malgutasun gehiago izatea.
 6. Bihotz-biriketako sistemaren funtzionamenduan hobekuntza.
 7. Bizkarreko mina murrizten du.
 8. Zirkulazioan hobekuntza.
 9. Estresa murriztu eta erlaxatu.
 10. Garunarentzako onurak.
 11. Asma, diabetesa eta kolesterola dituztenen gaixotasun kronikoetan hobekuntza.
 12. Zahartzarua atzeratzen du.



Aiurri eskuragarri: Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain Tel.: 943 300 732 Faxa: 943 300 731 andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondoa.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailea: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
 Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ** ERROITZ MUGATUA

ALIATUAK: **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia Hizkuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bukan**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



Bideo eta argazki-bilduma zabala



Bideoa: Txistularien kalejira Urnietan



Bideoa: Dantza saioak Urnietan



Bideoa: Trikuharriaren aurkikuntza Onddin



Bideoa: Polizia operazioa Andoainen



Bideoa: Ama Kandida gogoan



Bideoa: Pentsiodunen elkarretaratzea



Bideoa: Ikasturtearen berrabiaratzea



Bideoa: Illarramendi baserriaren eraisketa



Bideoa: Osasun eta zaintza arloko langileen alde



Ekainaren 1eko elkarretaratzea, Goikoplazan. AIURRI

Pentsioen aldeko bilkurei berrekin diete, Andoain

Datorren astelehenean, ekainak 8, hitzordu berria ipini dute Goikoplazan. Goizeko 11:00tan izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Pentsio duinen aldeko asteleheneko elkarretaratzeari berrekin diete Andoain. Koronabirusaren aurreko garaiko ohihurtari eutsiz, ekainaren 1ean goizeko 11:00etan hasita elkartu ziren Goikoplazan. Bertaratu zirenek, lehenik eta behin doluminagertu zizkieten krisi honetan beren senide eta lagunak galdu dituzten pertsona guztiak. Ez da ahaztu behar, koronabirusak eragin dituen biktimen artean andoaindarrak badirela. Gipuzkoako lehen hildakoa, hain zuzen, Andoaingo herrikidea izan zen.

Dolua agertzearekin batera, esker ona adierazi nahi izan zuten: "Osakidetzako pertsonalari, etxez etxeko laguntzaileei, Erresidentzietako langileei, eta pertsonen atxilotuak erabateko sostengua eta laguntza eskaini dutenei, kasu askotan gainera

babes bitartekorik ez edukitzeagatik beren bizitza arriskuan jarri".

Osasun publikoaren alde

Osasun publikoa bermatuko duen sistemaren aldeko aldarria egin zuten: "Covid-19k eragindako krisi honetan nabarmen gelditu da urgentziatzko gauza dela Osakidetzako zerbitzu publikoa, Dependentsiazko arreta eta Etxez Etxeko zerbitzuak egokitu eta sendotu beharra dagoela. Eta ezin ezin dugu onartu murrizketak aplikatuz segitzea edota enpresa pribatuetan uztea zerbitzu horiek, helduen eskubideen kaltetan mozkin handiagoak lortu nahi izatea delako. Azpimarratu nahi dugu ondorio hain tragikoen parte bat osasun eta dependentsiaren sisteman aplikatutako murrizketak direla".

Hurrengo astelehenerako hitzordu berria jarri dute..



Boto zenbaketa Aita Larramendi ikastolako hauteslekuan, artxiboko irudian. AIURRI

Botoa Andoaingo eta Urnietako kirol guneetan eman behako da

Koronabirusak eragindako alarma dela eta, hautesleku berriak izango dira uztailaren 12ko hauteskundeetan

Erredakzioa ANDOAIN

Lehendakaritazarako uztailaren 12ko hauteskundeetan aldaketa nabarmenak izango dira, hauteslekuak dagokionez. Joan zen astean bozkalekuen zerrenda argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkaritegi Ofizialean, eta bertan agertzen denez Andoainean Allurralde kiroldegian eta Arra-

te pilotalekuan eman ahal izango da botoa. Urnietan, bestalde, Udal pilotalekuan.


La Salle Berrozpe ikastetxea, Bastero edota Aita Larramendi ikastola izan ohi ziren hautesleku finkoak, aurreko hauteskunde guztietan. Eta Urnietan, berriz, Lekaio kultur etxea eta Udal musika eskola.



Arrate pilotalekuko kantxan eta beheko solairuan botoa eman beharko da. AIURRI

HAU ERE BADUGU!

Polizia operazioa Andoaingo Etxeberrietan



Maiatzaren 27an Andoainean izandako polizia operazioaren xehetasunak eskaini ditu Ertzaintzak, berriki. Antza denez, 22 urtetik 60 urtera bitarteko 7 pertsona atxilotu zituen maiatzaren 27an eta 28an Iruran, Andoainean, Donostian eta Iruñean egindako sarekadan. Atxilotuak Tolosako epailearen aurrera eraman zituzten, maiatzaren 29an. Epaileak atxilotuetako bat espetxean sartzeko eta gainerakoak karguak egotzita aske uzteko agindua eman zuen. Aske geratu direnek epailearen aurrera agertu beharko dute, hala eskatzen zaienean.

Lapurretara bideratutako talde antolatatu bat omen zen, Ertzaintzak emandako datuen arabera.

Elkarretaratze bikoitza

Desberdintasunak desberdintasun, presoaren aldeko eta urrutze politikaren aurkako elkarretaratze bikoitza izan zen Andoainean, joan zen astean. Maiatzaren 28an gose greban dagoen Patxi Ruiz Nafarroako presoaren aldekoa, eta maiatzaren 29an Etxeratek deiturikoa. Biak ala biak Zumea plazan izan ziren.



AIURRI



AIURRI



Andoaingo Udal ordezkariak, kereilan pertsonatutako biktimak eta Oroituz elkarteko kideak Tolosako epaitegi aurrean, 2019ko ekainaren 12an. AIURRI

Frankismoaren aurkako kereilarekin aurrera

Andoaingo Udalak, besteak beste, frankismoaren aurkako kereilarekin jarraitzea erabaki zuen joan den ostegunean ospatu zuen udalbatzan. Konstituzio Epaitegira jotzeko asmoa dauka, era horretan

Xabier Lasa ANDOAIN
Tolosako epaitegiak eta Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak ezezkoa eman ostean, Andoaingo Udalak aho batez frankismoaren aurkako kereilarekin aurrera jarraitzea erabaki du. Era horretan, Espainiako Epaitegi Konstituzionalera joko du, eta honek ere kereila kontuan hartu ezean, Giza Eskubideen Europako Epaitegiko bidea hartuko du. Gazi gozoa da Andoain frankismoaren alde lan egiten duen Oroituz elkarteak egin duen balorazioa. Batetik, atsekabea agertu du Estatu espainiarreko epaitegiek berriz ere uko egiten diotelako frankismoak eragindako biktimei zor zaizkien eskubideak onartzeari. Bestetik, ordea, eskerrak eman dizkie aurreko eta egungo Udalei, kereilaren aldeko konpromiso irmoa hartzeagatik. Aldi berean, kereilan modu aktiboan pertsonatu diren hogeitaz biktimen jokatzea goraipatu du, beren testi-

gantz pertsonalak eskainiz kereila indartzen duela ziurtatuta.

2017an abiatutako prozesua
2017ko uztailaren 12an, Kereilaren aldeko Euskal Herriko Plataforma eta Oroituz elkarteak aurkeztu zuten mozioa onetsi zuen Udalak. Oroituzek kereilan aurkeztu beharreko txostena atontzeari ekin zion, Basteron irekitako Biktimen Arretarako Bulegoan testigantza pertsonalak eta informazioa jaso eta gero.

Azkenik, 2019ko ekainaren 12an, orduan alkate zen Ana Carrerek Andoaingo Udalak ordezkatzuz, Tolosako epaitegian salaketa jarri zuen, frankismoak

FRANKISMOAREN AURKAKO KEREILAREKIN AURRERA JARRAITZEA ERABAKI DU UDALAK

Andoain 1936-1977 epean eragindako giza eskubideen urraketak ikertzea eskatuz.

Tolosako epaileak zein Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak ezetzi egin dute salaketa, eta beraz, Andoaingo Udalak Epaitegi Konstituzionalera jotzea erabaki du.

Bestetik, gogoratu behar da bigarren bide judizialak ere irekita jarraitzen duela; izan ere, 2019ko ekainean, Tolosan ez ezik Buenos Aireseko epaitegian ere aurkeztu zen salaketa, bat eginez Maria Servini epailearen eskuetik abian den Argentinako kereilarekin.

Oraingoz, Estatu epaileek atzera bota dituzte udalak eta partikularrek jarritako kereilak. Biktimek eta biktimen elkarteek maiz adierazi izan dute frankismoak oraindik ere inpunitatea gozatzen segitzen duela, eta estatu botereetan interes eskasa dagoela krimenak iker daitzen.



EH BILDU

Miranda pasealekua

Udaren atarian, herrigunea egoera berrira egokitzeko garaia dela uste du EH Bilduk: "Herritarrontzat espazio ireki, eroso eta seguruak behar ditugu. EH Bilduk proposamen zehatz bat egiten dio udal gobernuari: Miranda pasealekuko zonalde berdea herritarron erabilpenerako bermatzea". Bideoa eta irudi-muntaia argitaratu du, proposamena hobeto uler dadin.



ALDUNDIA

A15 eta N1 arteko lotunea

A15 eta N1 errepideen arteko lotunea hobetzeko egitasmoa lizitaziora atera du Bidegik. "Lotunea erre bakar batetik bi erre izatera igarotzea eta 80 km/h-ko gutxieneko konexio-abiadura bermatzea bilatzen dugu eta gaur egun sortzen diren auto ilarak ekidin", azpimarratu du Aintzane Oiartzabide Bide Azpiegiturako diputatuak.





Dani Arizalak egin zituen aurkezpen lanak Ama Kandidaren jaiotzaren ospakizuneko ekitaldian. Segurtasun neurriak bete zituzten, zorrotz bete gainera. AIURRI



Blanca Esther. AIURRI

Komunitatearen eskertza

Blanca Esther Gipuzkoa eta Nafarroako kongregazioko arduraduna da. Eskertza adierazi zien ospakizunaren antolatzaileei: "Bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuet Kaletxikiko leku hau horren ondo zaintzeagatik eta Ama Kandida beti horren presente edukitzeagatik".

Mikel Arberas ANDOAIN

Bizi dugun Osasun Alarma egoera oso serio hartu eta auzoa maite duten kaletxikitar talde batek ekitaldi berezia prestatu zuen igandean, Ama Kandidaren jaiotzaren urteurrena ospatzeko. Konfinamenduak auzotarren arteko anaitasuna areagotu du, eta aurreko asteetan auzoa girotzen aritu diren auzotarrek ekitaldi berezia prestatu zuten. Irrintzia, bertsoa, musika, dantza... euskal tradizioaren isla izan zen igandekoa.

Dani Arizalak aurkeztuta, saio dinamikoa izan zen ekitaldian zehar auzotarren parte hartzea sustatu zuelako.

Ospakizunean zehar parte hartu zutenak bikain aritu ziren. Hots, Aner Portuburu gazte irrintzilaria, Xabier Arantzeta bertsolaria, Xabier Ariznabarreta, Borja Rubiños, Estitxu Sistiaga eta Mikel Urdangarin musikariak, Txitxu Castro eta Juanita Ikutza kantaria eta Izaneta Aizpurua eta Gorka Duran Oinkari dantza taldeko kideak.

Saioa, kaperara hurbildu ziren auzotarrentzat ez ezik, kongregazioko kideentzat ere hunkigarria izan zen.

Ama Kandida gogoan hartzeko ospakizun berezia

Joan zen igandean 175 urte bete ziren Ama Kandida jaio zela. Efemeride borobil hura gogoan hartuta, ekitaldia antolatu zuten. Igandero mezara hurbiltzen den auzotar talde kopuru mugatu batek gozatu ederra hartu zuen, baita kongregazioko kideek ere

Kongregazioko kideen eskertza

Blanca Esther Tolosatik hurbildu zen, Gipuzkoako eta Nafarroako ordezkari nagusi modura. Eskertza adierazteko mezua eman zuen: "Ohorea da zuek

guztiokin Ama Kandidaren 175. urteurrena ospatu ahal izatea. Hau guztion lekua da, eta, beraz, guztiontzako mantendu beharreko lekua da, leku berezia. Opari bat ekarri dizuet, lore

sorta bat. Ama Kandida emakume xumea zen, hortaz, lore sorta xumea ekarri dut; lore-begiez josia dago eta hemen gauden guztion aniztasuna irudikatu nahi izan dut. Bihotzez eskerrak

eman nahi dizkizuet Kaletxikiko leku hau horren ondo zaintzeagatik eta Ama Kandida beti horren presente edukitzeagatik".

Xabier Arantzeta bertsolaria

Bertsolaria ere kongregazioko kideak omentzeko baliagarria izan zen. Arantzeta "Toxak" Kaletxikiko bizi da, eta aldaretik bertsolaria eskaini zien kongregazioko kideei: *Ehun da hirurogei ta hamabost gaur zure urtebetetzea. Joxepatxo, Ama Kandida, nahi degu zoriontzea. Zure etxean gaurkoan, guk baimena eskatzea ta Jesusen lau alabei omenaldia egitea: Maria Dolores, Koro, Lurdes, Pakita maitea eskertu nahi dizuegu jarrera ezin hobea. Konkistatuta duzue, Kaletxikiko jendea.*

Eneko Urdangarin, Miren Erkizia, Xabier Arantzeta eta beste zenbait lagunak ekimenari izan zen. Ezin aipatu gabe utzi Koronabirusak eragindako hildakoak. Ezer baino lehen, igandean minutuko isilunearekin gogoan hartu zituzten.



Berrozpen bizi diren Jesusen Alaben kongregazioko kideak. AIURRI



Izaskun Aizpurua eta Gorka Duran Oinkari dantza taldeko kideak. AIURRI



Mikel Urdangarin, Esti Sistiaga eta Juanita Ikutza. AIURRI



Xabier Ariznabarreta eta Borja Rubiños. AIURRI



Aner Portuburu eta Xabier Arantzeta. AIURRI

Juana Josefa Zipitria Barriola, "Ama Kandida"

KALETXIKIN SORTU ETA GERORA BEATIFIKATU ZUEN ANDOAINDARRAREN BIOGRAFIA LABURTUA

Andoaingo Berrozpe baserrian jaio zen Juana Josefa Zipitria Barriola "Ama Kandida", 1845eko maiatzaren 31n. Aurtengoan, beraz, 175 urte bete dira. Eta efemeride hori dela eta, ospakizun berezia antolatu zuten auzotarrek.

XIX. mendean Berrozpe baserria etxebizitza ezberdinetan banatua zegoen eta bere familia eskuin aldera zegoen bizigunean bizi zen. Urteak pasa ahala, Berrozpe baserria hutsik geratzen joan zen eta 1926an enkantean jarri zuten. Oso egoera txarrean zegoen ordurako. Juan Olazabal donostiarrak erosi zuen 1926ko urriaren 12an, 12.000 duoren truke. Etxea Jesusen Alaben kongregazioari oparitzea erabaki zuen, baina etxea ez zen erabilgarri izan 1946ra arte.

Ibilbide oparoa osatu zuen Ama Kandidak. Biografia osoa asko laburtuta, hona hainbat datu. 17 urte inguru zituela, Burgosera joan zen. Zazpi ahizpetan zaharrena zen eta ez zuen heziketak jaso. Horrenbestez, neskame lanetan hasi zen familia aberats batentzat. Familia hura Valladolidera joan zen bizitzera eta bera ere bai, haiekin batera. Valladoliden zegoela ezagutu zuen Miguel Herranz jesuita. Haren laguntzarekin erabaki zuen bere etorkizuna erlijiora eta heziketara bideratzea, batez ere emakumeei zuzenduta.

Salamancara joateko erabakia hartu zuen orduan, garai hartako hezkuntza gune nagusia bertan zegoelako.

1871ko abenduaren 8an Jesusen Alaben kongregazioa sortu eta hezkuntza arloan

lanean hasi zen, 26 urte zituela. Beste bost emakumerekin batera eman zituen lehen pausoak. Denbora gutxira, zenbait eskola irekitzea lortu zuen, Salamancan eta inguruko herrietan lehendabizi, eta beste hainbat tokitan geroago. Gaztela inguruan hainbat ikastetxe zabaldu ondoren, Euskal Herrira zabaldu zuen bere ekimena. Hemen ere eskolak eraikitzen hasi baitziren.

Bera hil aurretik, Brasilen bi etxe irekita zeuden dagoeneko. Filipinetan, Hego Amerikako hainbat herrialdetan, Afrikan, Asian..., Jesusen Alaben kongregazioa premia larrian dauden herrietan zabaldu da.

Egun, mundu zabaletik, Kongregazioko kideen eta fededunen bisitari ugari hurbiltzen da Andoainera. Bereziki, Ama Kandidaren jaioterria ezagutu asmoz.





Joxe Ramon Berrondo aita semeak, Asun Garcia eta Eneko bere semea eta Jose Gomez bere senarra, Joxe Mari Oiartzabal eta Pello Oiartzabal, Antzizar etxean egin zuten abestiaren aurkezpenean. **AIURRI**

Trentxikiko Zibeles Jainkosari egindako kantua

Oiartzabalek eta Berrondok atrofia muskularra jasan arren bizitzari kementsuki aurre egiten dion Asun Garciari abestia eskaini diote. Trentxiki bidean kokatzen den Antzizar etxean abestia aurkeztu zuten, Garcia eta bere familia bertan zirelarik

Xabier Lasa ANDOAIN

Asun Garcia *Txonzi* herritarra-
ren nortasunagatik miresmena
agertzen duen abestia sortu

dute Joxe Mari Oiartzabal eta
Joxe Ramon Berrondo musika-
riek. Doinua konposatu du
lehenak, eta letra bigarrenak.

Leitzaran bailararen atarian
kokatzen den Antzizar etxean
egin zuten abestiaren aurkez-
pena, Asun Garcia eta bere

familia –Jose Gomez senarra
eta Eneko semea– bertan zire-
larik.

Bi musikariek bigarren ezi-
zena jarri diote Asun Garcia
Txonzi-ri: Zibeles, Amalurraren
Jainkosatzat hartzen dena. Be-
rrondok argibideak azaldu zituen
Antzizar etxe aurrean joan den
ostiralean egin zuten bilkuran:
“Trentxikiko Zibeles Jainkosa
dela esaten diogu. Izan ere, na-
barmentzekoa baita ez bakarrik
bere kementa aurrera egiteko
nahiz eta gaixotasun larria edu-
ki, baita ere Trentxikiko bide-
tik paseoa agertzen denean
berarekin ezpainetan beti ekar-
tzen duen irribarreagatik. Etxe
aurrean topo egiten dugunean
bide bazterreko bankuaren in-
guruan jarri, eta tertulian hitz
aspertuari ekiteko ohitura iza-
ten dugu. Mintzalagun atsegina
eta goxoa da Asun, eta askotan
isilik egonda ere gauzak adie-
razten dakien emakumea da.
Zenbat eta gehiago ezagutu bera,
orduana eta miresmen handiagoa
eragiten dizu, bizitzari aurre
egiteko erakusten ari den ke-
menagatik”.

Leitzaran bailararen maitale

Asun Garciak maiz jotzen du
Leitzaran aldera paseatzera,
“Lasartekoak ditut gurasoak,
eta haiengana bisitan joaten ez
banaiz, saiatzen naiz Leitzaran
aldera abiatzea. Arnasgune la-
saia da Leitzaran niretzat. He-
rria atzean utzi eta bidean ba-
rrera noan heinean, ahaztu
egiten zait motordun gurpil
aulki batean noala, eta aldi be-
rean, ahaztu egiten zaizkit gor-
putzean eta hanketan dauzkadan
ezintasunak. Batzuetan, aurre-
ra-aurrera, Otieta parkea igaro
eta igual Presaburu baserriaren
ingururaino iristen naiz. Han,
egonean egoten naiz, Leitzaran-
go bailarak eskaintzen didan
bakea arnasten, gozatzen. Oi-
nezko batzuek geldirik ikusten
nautenean, ea aulki gurpila
matxuratu ote zaidan eta ea
laguntzarik behar dudan gal-
detzen didate. Inguruaz gozatzen
ari naizela esanez, eskertu egi-
ten dit jartzen duten interesa”.
Garciak Antzizar etxean egin
zen abestiaren aurkezpen-eki-
taldian aitortu zuenez, ez zuen
inondik ere espero halako opa-
ria jasotzerik. “Oraindik ere
lur hartu ezinik nago, pozik
kabitu ezinik, eta ez dit denbo-
ra eman Joxe Ramoni eta Joxe
Mariri bihotzez eskertzeko ere!
Ikaragarritzko energia injekzioa
da nigan pentsatuta abestia
eskaini izana. Oraindik orain,
Joxe Ramonek galdetu zidan
ea musika gogoko nuen, eta
erantzuteko ia denborarik eman
gabe abestia nola sortu zuten
eman zidan aditzera. Oso doinu
polita dauka abestiak, eta be-
rarekin doan letra ere zoragarria
da, hunkigarria”.

Iaz, Martxoak 8ko egun sei-
nalatuaren harira Andoainen
publikoki nabarmentzen diren
zortzi emakumeetako bat izan
zen Garcia. Gaixotasun larria-
ri aurpegirik kementsuena eta
alaiena jartzen diola, eta bere
jarrera eredugarria dela azpi-
marratu zuten orduan. Asunek,
txanda hartan adierazi zuen
bezala, oraingoan ere garbi utzi
nahi izan du ez duela oso gogo-
ko bere burua era horretan
goraipatzea. “Eredugarria, au-
sarta, borrokalaria... naizela
esaten didate, baina neu ez naiz
beste inor baino gehiago. Nork
bere trabak eta ezintasunak
eduki ohi ditu bizitzan zehar,
eta guztiok egiten dugu aurre.
Borroka pertsonala bilakatzen



Asun Garcia, partiturekin.

Asun Garcia "Txonzi"

Asun Garcia zure presentziak Trentxikin distira ederra sortzen du bizitza alaituz... alaituz. Zibeles antzera zatoz karroan irria aurpegian. Bideko Jainkosa zara guretzako eredu. Asun Garcia andre kementsua, amatxo... Gaixotasunari aurre ekinez, bizituz, bizituz. Zibeles antzera zatoz karroan irria aurpegian. Bideko Jainkosa zara guretzako eredu.

da bizitza guztiontzat, azken batean behin egin beharreko bidai honetan ahalik eta zoriontsuen izan nahi dugulako".

Mezu itxaropentsua zabaldu nahi izan zuen Garciak, "sufriendu motaren bat duen orok, antzera jokatu beharko luke. Alderdi itxaropentsuei helduz, eta ezkorrenak baztertuz".

Asun Garciak distrofia muskularra jasaten du orain 18 urtetik hona. Eneko, bere semea, jaio eta berehala egin zioten diagnostikoa, tratamendu jakinik gabeko gaixotasun arraro horietako bat zeukala. Geroztik gorpua ahultzen joan zaio, eta badira urte batzuk motordun gurpil aulki batean ibili beharra daukela. Andoaingo kaleetan ohikoa egin da Asun Garciaren presentzia, hona eta hara dabilela. Inoiz ez du umorea galtzen ezta jendartekotasuna ere, eta beti dauka tartea nahi duen guztiarekin hizketan jarduteko.

Filosofia baikorrari eutsita

Urtetako ibilbide horretan gora behera handiak eduki dituela aitortu zuen Garciak Antzizar-ko etxean egin zen agerraldian.

**"MARTXOAK 8
EMAKUME"
EKITALDIAN
OMENDUETAKOA IZAN
DA ASUN GARCIA**

"Oso bizialdi latza izan zen hasieran, egunez egun ohartzen bainindoa nire gorpua gero eta muga fisiko gehiago ari zela jasaten. Errealitatea onartu ezinik, nire buruarekin borrokan jardun nuen zenbait urtetan. Eta orain denboraren joanak ematen duen perspektibarekin, konturatzen naiz Eneko, nire semeak, ume batek bizi behar ez lituzkeen egoerak bizitu behar izan zituela".

Halako batean bere buruarentzat ez ezik ingurukoentzat ere kaltegarria zen egoera emozional hura iraultzea lortu zuela gaineratu zuen. "Erabaki nuen gaixotasunarekin batera egin behar nuela borroka, ez gaixotasunaren aurka".

Etxekoak gogoan

Filosofia baikor horri eutsirik darama urte mordoak Asunek, nahiz eta noizean behin gora beherak eduki, eta eginahal horretan senarra zein semearentzat laudoriozko hitzak baizik ez dauzka. "Nire bi makuluak dira, dena zor diet, une gozoetan bezainbat gazietan beti-beti ondoondoan eduki ditudalako. Pertsona maitagarriak dira biak".

**ASUN GARCIAK
MAIZ JOTZEN DU
LEITZARAN
ALDERA
PASEATZERA**



Ama kantuaren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

Ama abestia

Oiartabalek eta Berrondok osatutako musika-bikotearen sormen iturria ez da berehalakoan agortzen den horietakoa, eta azken asteetan, Asun Garciari ez ezik gertugertuko beste pertsona bati bigarren kanta eskaini diote.

Ama du izenburua abestiak, eta oraindik orain zendu den pertsona hartu dute inspirazio gisa. Nolanahi ere, abestian familia guztietako amak islatuta geratzen direla zehaztu nahi izan dute bi sortzaileek. Hona zer dioten letrak (bideoa ikusgai dago Aiurri.eus web orrian):

AMA

Oroitzapen ederrak datozkit burura zuregan pentsatuaz beti guregaitan ekintza guztiak bihotzez eskainiak.

Lana ona egin zenuen zinez gu aurrera ateratzean. Zauden lekuan zaudela ama maitasuna zuretzat!

Goxotasun babesa oinarri eredu dena zenun guretzat. Lehentasuna zenuen bizitzan, gu pozik ikuste!

AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitetz harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago



25 €

Harpidetza egiteko sar zaitetz
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



Xesto gosez

IMANOL ANSA ORIAMENDIKO REMONTISTA

ERREMONTA Ekainaren 20 edo 27an jarriko da martxan erremontea berriz; Ansak Oriamendirekin berritu du kontratua, beste eskaintza bat eduki badu ere

Andoni Urbistondo URNIETA

Erremontea izanen da pilota munduan lehiaketara itzuliko den lehen diziplina. Esku pilotan zaleek dakarten diru iturrien halako menpekotasunik ez du, eta berehala jarriko da martxan Galarretan, bi edo hiru aste barru. Han izango da Imanol Ansa, Ansa II. urnietarra. Oharkabeen bost urte joan dira, profesionalen debuta egin zuenetik, eta eskailerak igotzen jarraitu nahi du, pixkanaka, egunen batean txapel bat janzten saiatzeko bidean.

Ansak, noski, ez du partidarik jokatu pandemia hasi zenetik, baina lanean aritu da. Goizeko txandan Asteasuko Poliprecis enpresako bulego teknikoan aritu da. Erremontista guztiek bezala, denek beste lan bat baitute, kirolari jardunaz gain. 14.30ak jota, tallerrean aritu da, prestakuntza fisikoan: “Pabilioko 60 metroetan kono batzuk jarri, eta hara eta hona ibili naiz”. Pandemiarekin batera bukatu zen Oriamendi enpresarekin zeukan kontratua, eta exijentzia pertsonalagatik aritu da ariketak egiten, Unai Legarreta prestatzaileak aginduta.

Fisikoki kili-kolo harrapatu zuen etenak: “Belauneko arazoak izan ditut, eta plasma tratamendu bat egiten ari nintzen urtaririlaz geroztik. Jokatu, jokatu nuen, Sagardoaren Txapelketa, baina molestia batzuekin. Zentzu horretan, ondo osatzeko ondo etorri zait etena. Indar ariketak eta belauna ondo mantentzeko lanak egin ditut, Juanma Morales medikuarekin”.

Ettxeratze agindua arintzen joan zen heinean hasi zen lehiaketara bueltatzeko leihoa irekitzen. Baina ireki zenean, orain arte ez bezala ireki zen. “Nafarroan beste erremonte enpresa bat sortu da. Haiek ere harremanetan jarri ziren nirekin eta beste pilotariekin”. Pandemia aurretik izan omen zen, “urta-



Imanol Ansa Urnietako erremontista. AIURRI

rrila aldera edo. Oriamendi-ri baimena eskatu zioten, gurekin hitz egiteko, eta Leitza bilera egin genuen”. Ansak ez daki enpresa horri ze izen jarri dioten, “baina uste dut lau bazkide direla. Bi etorri ziren Leitza bilerara. Batzartu ginen, eta euren asmoa erremonteari kalterik ez egitea zela esan ziguten, Oriamendirekin batera kirol diziplina hau bultzatu nahi zutela. Nafarroako Gobernuak Nafarroan erremontea

hedatzeko asmoa zuela, erremontea berez herrialde hartan sortua delako. Guri proiektua azaldu zigutenean, Oriamendirekin negoziazio prozesuan omen zeuden”.

Ettxeratzea arintzen hasi eta gero jabetu ziren, pilotariak, ordea, bi enpresek euren kasa egingo dutela bidea. Oriamendin 15 pilotari geratu dira, eta Nafarroako enpresarekin, 18. “Oker ez banago, Oriamendirekin ari tutako bederatzi pilotarik sina-

tu dute Nafarroako enpresarekin, eta lau gazteri debutatzeko aukera emango diete. Oriamendiko pilotari ohi batzuk ere bueltatuko dira, jardun profesionalera. Lehen, Oriamendin, 25 pilotara ginen denera, orain bi enpresak batuta, 30. Ez da igoe- ra handia, baina polita bai”, dio Ansak.

Imanol Oriamendin geratu da

Ansak Oriamendi enpresarekin jarraitzea erabaki du. Zergatik, bada? “Proiektuagatik. Hiru txapelketa ziurtatu dizkigute: ETB, banakakoa eta ondoren binakako Kutxabank txapelketa”. Ekainaren 20an edo 27an hasiko da lehena, binakakoa, sei bikoteren parte hartzearekin. Telebistaren, ETBren jarraipena ziurtatu diete. Hiru txapelketa horiek urtea betetzeko nahikoa izango direla uste du Ansa II.ak: “Bai behintzat txapelketak jokatu ditugun pilotariontzat. 20 eta 30 partida artean, urteko. Maila apalagoa duten pilotariekin, noski, partida gutxiago izango dituzte. Larunbatetan jokatu dugu, eta ostegunetan dagoeneko ez da jaialdirik egongo. Larunbatetan, aldiz, jaialdiak bi partidakoak izanen dira”.

Ansaren asmoa egunen batean banakakoa edo binakako txapeldun izatea da, “eta hori lortzeko Galarretan izan behar duzu txapelduna. Aurten 50 urte beteko ditu Galarretak, txapeldun handi guztiak han egin dira, eta nik bertan nahi nuke txapelduna izan. Halaxe esan nion, gainera, Nafarroako proiektua sustatzen ari diren enpresariei. Niretzat Galarreta Katedrala da”.

Nafarroako enpresa hori agertu izana onuragarria izango al da erremontearantz? “Pilotariok bi enpresei hasieratik esan genien kolaborazio bat nahi genuela. Momentuz ez dirudi hori posible izango denik. Oriamendi Nafarroako Fundazioarekin aritu izan da elkarlanean, eta harreman hori hoztu egin da, orain, nonbait. Enpresa bakoitzak bere bidea egin du. Biak

banatuta egonda, banaka-banaka, indarra galtzen da apur bat, baina erremonteak irabazi egingo du. Bi enpresekin konpetentzia handitu egingo dela esango nuke, pilotariok ere orain arte ez geneukan presioa izango baitugu. Oriamendik ere ekimen berriak egin ditu, Nafarroako enpresak egingo duen bezala”. Erremontea Nafarroatik harago zabaldu eta ikustaraztea omen du helburu, Nafarroako enpresak, “eta hori onuragarria izango da nire ustez. Bi enpresak afizionatu mailan egiten ari ziren lana ere indartu egingo dela uste dut, eta hori ona da erremontearantz”.

Oriamendin geratu direnak, eta Nafarroako enpresarekin sinatu dutenak, baldintza ekonomiko hobeekin sinatu omen dute kontratua. “Partidako jasotzen genuen kopurua nabarmen igo da, baina egia da trukean partida kopurua nabarmen jaitsi dela. Akordio hobea sinatu dugu, nire ustez. Erremontista guztiak lanean ari gara, erremontista izateaz gain, eta aurrerantzean ere hala segitu beharko dugu. Diru puska interesgarri bat jasoko dugu, gure kirol aktibitateari esker”.

Pilota astintzerakoan gauzak garbi ditu Imanol Ansak, eta buruz ere ondo jantzia da, gaztetxoa izanda ere (24 urte): “Oriamendin eskailerak igotzen joan naiz, nahiz eta azken bizpahiru urteak lesioekin-eta ez diren onak izan. Urtero hobetzen joan naiz, eta 2019a oso urte polita izan zen. Goikoei kontra egiteko moduan nagoela erakutsi dut, hori bai, oraindik haien parean egon gabe. Baina haiek orain izerdi pixka bat bota behar dute ni garaitzeko, eta hori bada zerbait. Bitxia da nire gorputz txikian kolpeko pilotaria bilakatu naizela, eta inork ez zuela halakorik pentsatzeko bost urte atzera. Lan handia egin dut hori lortzeko”. Azpeitiko kide batek, Iban Larrañagak esaten diona dakar elkarrizketara, solasaldia bukatzeko: ‘nondik ateratzen duk indar hori, hain gorputz txikian?’.

"PILOTARIOK BI ENPRESEI HASIERATIK ESAN GENIEN KOLABORAZIO BAT NAHI GENUELA"

"GOI MAILAKOEK IZERDI PIXKA BAT BOTA BEHAR DUTE NI GARAITZEKO. ETA HORI BADA ZERBAIT"



AIURRI

Andoaingo pilotalekuak, zabalik

PILOTA Maiatzaren 27an hasita, Udalak herriko pilotalekuetan jokatzeko baimena ematen zuela jakinarazi zuen. Aurretik, hainbat erabiltzaile eta Udaltzaingoaren artean kirol jarduerak horri buruzko interpretazio ezberdinak egin zituzten. Udalak, azkenik, jarduerak baimentzea erabaki zuen. Geroztik, pilotan edo palan aritzeko aukera dago.



AIURRI

Skate parkean aritzeko aukera

SKATE-A Andoaingo Skate gunea erabilgarri dago, maiatzaren 27az geroztik. Iazko udan ireki zutenetik harrera bikaina izan du, eta erabiltzaile asko noiz ireki zain zeuden. Bertako erabiltzaileek salatu dutenez, kirol jarduerarekin zerikusia ez duten beste herrikide batzuk jokabide zatarra izaten ari dira. Goizero, zabor ugari topatzen omen dute bertan.



Nora Mendizabal. AIURRI

Gipuzkoa mailako txapelketak, bertan behera


PILOTA Azken erabakiaren berri eman zuen Gipuzkoako Federazioak, joan zen astean

Erredakzioa ANDOAIN

Azken unera arte eutsi nahi izan dio Federazioak denboraldiarekin jarraitzeko aukerari, eta hainbat proposamen lantzen ibili zen; baina Koronabirusa dela medio sortutako egoera eta aurreikuspenak aztertuta, federatuen txapelketa guztiak bertan behera uzteko erabakia ofizial egin zuen. Gauzak horrela, oraindik jokatzekoak ziren txapelketak ez dira ospatuko, besteak beste hauexek:

- Herriarteko Txapelketa.
- Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketa, eskuz banaka lau terdian, gizonetako eta emakumezko mailakoak.
- Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketa, zesta-punta banaka.
- Gipuzkoako Errebote Txapelketa.
- Gipuzkoako Eskuko Pasakako Txapelketa.
- Horrez gain, etenda gelditu ziren txapelketan ere bertan behera geratu direla adierazi du Federazioak.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, beraz, 2019-20 denboraldia behin betiko bertan behera uztea erabaki du. Datorrenean pentsatzen hasi beharko da.



Gimnasioa eta atletismo pista erabiltzeko aukera izango da. AIURRI

Kirol instalakuntzen irekiera

KIROLDEGIA Ekainaren 8an hasita, Allurralde eta Arrateko hainbat instalakuntza zabalduko dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Gimnasio zerbitzuak eta atletismo pista zabalduko dituzte, ohiko ordutegiari eutsita. Hori bai, %30eko gehienezko kopuruarekin beharko du izan, unean uneko araudiari men eginez. Allurraldeko edo Arrateko instalakuntzez baliatzeko erreser-

bak ekainaren 4tik aurrera egin ahal izango dira. Instalazioak erabiltzeko eta erreserbatzeko protokoloak jarduerak fisikoko eta kiroleko zerbitzuaren webgunean kontsultatu ahal izango dira.

Webgunea: kirola.andoain.eus

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak deialdi berria luzatu du

IGERIKETA Andoaingo eta Urnietako igerilariantzat kirol jardunean sakontzeko aukera ona da

Erredakzioa ANDOAIN

Buruntzaldeko igeriketa klubak datorren denboraldian aritzeko deialdia martxan jarri du. Aurtengoan, berritasun berriekin datoz, eta zenbait ordutegi zehaztu dituzte. Lehenik eta behin, klubera sarbidea erraztu nahiz izan dute, eta bigarrenik, maila handiagoko entrenamenduak eskaini nahi dituzte.

2011n eta 2012an jaiotakoak

2011 eta 2012. urtean jaiotako haurrek bi entrenamendu egun edukiko dituzte, 17:00etatik 18:00etara, eta egunak aukeran izango dituzte. Adin tarte honetako haurrek astelehenetik ostiralera bitartean edozein bi egun aukeratu ahal izango dituzte; hortaz, izen emate orrietan lehentasunezko aukera eta bigarren aukera hautatzeko eskatuko zaie.

2010ean jaiotakoak

Gauza bera izango da 2010eko haurrentzat, baina hauek hiru egun izango dituzte aukeratu beharrekoak.

2008an eta 2009an jaiotakoak

Bestalde, 2009ko haurrek eta 2008ko gazteek astelehen, asteazken eta ostiraletan egingo dituzte entrenamenduak, 18:00 eta 19:15 bitartean; baina nahi duenak 4 edo 5 egunetan entrenatu ahal izango du. Hau da, astearreetan, ostegunetan edo bietan 20:30etatik 21:30etara bitartean entrenatzeko aukera zabalduko zaie.

Izena ematea martxan dago buruntzaldeaikt.eus webgunean. Informazio gehiagorako 696 506 632 telefono zenbakira deitu edo info@buruntzaldeaikt.eus posta elektronikora mezua bidal daiteke.

HITZORDUAK

AGENDA ATALEAN IRAGARTZEKO. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Solasaldia

'Geroa euskaratik' kanpainaren baitan, elkarlanean antolatu dute mahai-ingurua Kontseiluak eta Martin Ugalde Foroak. Mahaikideak: Josu Amezaga, Idurre Eskisabel eta Amelia Barquin. Hirurak unibertsitateko irakasleak dira. Sarrera mugatua 25 lagunentzat. Saioaren emankizuna Internet bidez, berria.eus webgunean.

19:00 M. Ugalde Kultur Parkea.

URNIETA Euskara

Bulego-ordutegia zehaztu dute Urnietako euskaltegian, nahi duena bertaratu dadin. Joan aurretik hitzordua hartu beharko da.

Ordutegia:

Astearte, osteguna: 10:00-12:30.

Asteazkena: 16:30-18:30.

Telefono zenbakia: 662 338 747.

Emaila: urnieta@ae.eus.

Urnietako AEK euskaltegia.**ANDOAIN Matrikulazioa**

Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Ibilgailuen mantentzea (karrozeria). Aurrematrikula zabalik, 15-17 urte arteko gazteei zuzenduta.

Informazioa: 943 300 816.

E-posta: cip-lhi@andoain.eus

Opua pabilioia.**ANDOAIN, URNIETA Aholkularitza**

Beterri-Buruntza Garapen Agentziak, enpresekin eta autonomoekin egin bezala, informazio, orientazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen die langabetu eta familiei.

Aurretiaz hitzordua eskatu behar da, aurrez aurreko arreta jasotzeko.

Hitzordua eskatzeko 688 774 650 telefono zenbakira deitu behar da.

Ordutegia: 09:00-13:00.

Egunak: Astelehenetik ostiralera.

Garapen agentzia.

ASTELEHENA 8

ANDOAIN Elkarretaratzea

Pentsio duinen alde, asteleheneroko hitzordua.

11:00 Goikoplaza.

ANDOAIN Lehiaketa

San Juanetako kartel lehiaketa martxan. Informazioa: Andoain.eus

Parte hartzeko azken eguna.

ASTEARTEA 9

ANDOAIN Tailerra

Berdintasun sailak antolatuta, sendabelarren on line ikastaroa. Ekainaren 11n hasiko da, uztailaren 9ra arte. Saioak 18:00tan hasiko dira.

Izena emateko azken eguna.

OSTIRALA 12

ANDOAIN Matrikulazioa

0-2 urte bitarteko Galardi haurreskolaren matrikulazioa zabalik. Informazioa: 943 303 540.

Izena emateko azken eguna.**URNIETA Matrikulazioa**

0-2 urte bitarteko haurreskolaren matrikulazioa zabalik.

Informazioa: 943 334 036.

Izena emateko azken eguna.

Rikardo Arregi sariaren deialdi berria

XXXII. edizioa da aurtengoa eta, iaz hasitako berrikuntzei jarraiki, aurtan ere bi sari izango dira: "Kazetaritza saria" eta "Komunikazio saria". Euskarazko hedabideentzat erreferentziazko sariketa da

Erredakzioa ANDOAIN

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren deialdi berria aurkeztu dute. Donostian, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan egindako agerraldian xehetasunak eskaini zituzten Mikel Arregi Euskara zinegotziak, Patxi Baztarrika Euskara teknikariak eta Esti Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara sustatzeko zuzendariak.

Sarituak izateko hautagaitzak proposatzeko aukera izango du edonork, norberak bere burua edo nornahik beste norbaiten aldeko proposamena egin ahal izango du. Irabazleak nortzuk diren azaroaren 26an jakingo da, Andoaingo Bastero kultur-gunean izango den sari banaketa ekitaldian.

Xabier Lete gogoan

Ekitaldiaren goiburua da "Xabier Lete gogoan". Izan ere, sari banaketa ondorengo astean, abenduaren 4an, beteko dira hamar urte Xabier Lete hil zela. Poeta eta kantariaren oroimena gogora ekarri nahi du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak haren heriotzaren hamargarren urteurrenaren atarian. Mikel Arregi zinegotziak adierazi duenez, "Xabier Lete eta Rikardo Arregi batuko ditugu egun horretan Bastero kultur-gunean izango den sari banaketa ekitaldian. Musikarekin, kantuarekin eta poesiarekin oroitu dugu Lete".

"Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoak, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrezanetara egokitua". Hori da Andoaingo Udalak urtero gogorarazten duen mezua eta Kazetaritza Sari hau hogeita hamabi urteotan antolatzeke arrazoia. Udalak deitu eta antolatzen duen sariketak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntza jasotzen du, urtero bezala.



Baztarrika, Arregi eta Alkorta joan zen asteke agerraldian. AIURRI

Iazko berrikuntzen bidetik

Mikel Arregik azaldu zuenez, "iaz hainbat berrikuntza izan zituen Sariak eta, aurtan ere, iazko bide beretik bi sari izango dira: Kazetaritza saria eta Komunikazio saria. Izan ere, ohiko kazetaritzari bizkarra eman gabe, sare sozialetako komunikazioan ere jarri nahi dugu fokua. Euskara indartuko dugu gure bizimodua errazteko balio digun neurrian, eta horregatik da premiazkoa, herri-tarron eguneroko bizimoduan hain garrantzitsuak diren kazetaritza eta komunikazioan euskarazko sorkuntza, zabal-kundea eta kontsumoa sendotu eta areagotzea".

Esti Alkortak azpimarratu duenez, "euskarazko hedabideen arloa zeharo aldatu eta eraberritu da Rikardo Arregiren garrantik hona. Covid 19aren eraginez bizi izan dugun egoerak erakutsi digu euskarazko hedabideek badutela gaitasuna gure

jakin nahiak eta beharrak asetzeko. Euskarazko hedabideek jakin dute unean-unean egokitzen eta eraberritzen, eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak pizgarri bat izan dira bilakaera hori sustatzeko".

Aurtengo edizioaren oinarrien xehetasunak Patxi Baztarrika epaimahaiaren idazkariak eskaini zituen. Saridun izateko hautagaitzak (kazetaritza edo komunikazio lanak) irailaren 18ra bitartean aurkez litezke, proposamenak Andoaingo Udalera posta arruntez bidaliz edota helbide elektroniko honetara igorritik: raks@andoain.eus. Finalista edo sariduna izateko ez da, halere, ezinbestekoa izango hautagaitza aurkeztea, epaimahaiak aukera osoa baitu bere proposamen propioak eztabaidatzeko, eta jasotako proposamenen eta epaimahaiakideek beraiek egin eta eztabaidatutako artean finalistak eta sariak erabakitzeke.

"IAZKO BERRIKUNTZEN BIDETIK, AURTEN ERE BI SARI IZANGO DIRA"

MIKEL ARREGI, ANDOAINGO UDALA

"EUSKARAZKO HEDABIDEEN BADUTE GAITASUNA GURE NAHIAK ASETZEKO"

ESTI ALKORTA, EUSKO JAURLARITZA



Urnietako
udala



Romero, Obineta, Lainez, Arregi, Santana eta Alvarez hitzarmenaren sinadura ekitaldian. AIURRI

Euskararen iragana eta etorkizuna, elkar lotuta

Andoaingo Udalak eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Garagorrienea izeneko egitasmoari hasiera emateko hitzarmena sinatu zuten, maiatzaren 29an. Iraganeko oinarrietatik abiatuta etorkizuneko euskararen sakontzeko egitasmoa sustatu nahi dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalaren aldetik Maider Lainez alkateak sinatu zuen eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren aldetik Ariane Obineta Bazkuneko lehendakariak. Mikel Arregi Euskara Batzordeko burua eta Andoni Alvarez, Petri Romero eta Teresa Santana zinegotziak ere sinadura ekitaldian izan ziren, Euskara Batzordean ari baitira bideratzen ekimena.

Hitzarmen horren ondorioz Larramendi Bazkunak abuztuaren 31rako, Garagorrienea egitasmoa eta berau martxan jartzeko ildo estrategikoen agiria aurkeztu beharko dizkio Udalari. Agiri horien arabera erabakiko du ekimen proposamen horretan parte hartu ala ez. Garagorrienea egitasmoak bi

ardatz nagusi jasoko ditu bere baitan, eta hainbat helburu: batetik, Manuel Larramendi andoaindarra eta bere ekintzaren garrantzia eta, bestetik, etorkizuneko komunikazio eta informazioaren teknologia digitalak eta belaunaldi gazteak.

Etorkizuneko egitasmoa, oinarri sendotetik abiatuta

Larramendi Bazkuneko lehendakari den Ariane Obinetak egitasmoa aurkeztu zuen: "Garagorrienea ekimenaren bidez etorkizuneko egitasmoa osatu nahi dugu, baina iraganean dauzkagun oinarri sendotetik abiatuz, eta guretzat iragan horren indarra Manuel Larramendirekin, bere lanarekin eta bere garaiarekin hasten da, orduan eman baitzitzaion hasiera eus-

kalgintzari eta euskalduntasunaren kontzientzia sortzeari. Garagorrienea egitasmoak, lehenik eta behin euskalgintzaren ibilbide luzea azaldu nahi die herritarrei, "gure benetako barne historia eta gure altxorak" ezagutzera eman, heldu zein gazteei, ondoren aurrera begira ipintzeko, etorkizuneko komunikazioan, gure eguneroko harremanetan, teknologia digital berrien bidez egin beharreko

komunikazioan edo buruz buruko erabileran euskara komunikatzeko eta bizitzeko hizkuntza eta tresna izateko urrats berriak emanez".

Eta urrats horiek orain sortzen ari diren belaunaldi berriek eman beharko dituzte.

Udalari aurkeztu bezain laster, Bazkunaren barruan egitasmo horren gainera hausnarketa saio sakona antolatuko dute. Garagorrienea pizgarri izan beharko luke Bazkunekoentzat, Mikel Arregi euskara zinegotziaren iritziz, berriz, "garbi dago belaunaldi gazte berrien esku izango dela euskararen erabilera areagotu eta sendotzearen erronka hurrengo urteetan, eta garbi dago ere teknologia digital berriak ezinbesteko direla gaur egun eta are ezinbestekoago izango direla etorkizun hurbilean globalizazioaren komunikazio eredu".

Euskara elkar komunikatzeko hizkuntza izango bada, belaunaldi gazte horiek teknologia berri horietan euskaraz treba daitezen ezinbestekoa izango da eta, horretarako, Arregiren ustez, "Garagorrienea egitasmoak teknologia berrien bidezko gazteen euskarazko ekoizpenak egin eta sustatzeko bideak zabaltzea espero dugu".

Andoaingo alkate Maider Lainezek eman zion amaiera sinadura ekitaldiari bere esker ona adieraziz Larramendi Bazkunari, Andoaingo Udalarekin batera egitasmoa landu eta gauzatzeko egin dion eskaintzagatik. Adierazi zuen ziur dagoela plan estrategikoa aurkeztu ondoren bi aldeek ahalegina egingo dutela hori gauzatzeko bidean jartzeko, eta bizi dugun egoeraren arabera gauzatzen neurri eta bizitasun duin batez.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Irati Fernandez
Zorionak Irati, nola pasa den denbora, 5 urte handi! Muxu handi handi bat etxekoan partez!



URNIETA

Zorionak Jare
Ekainaren 8an 4 urte beteko dituzu. Urte askuan eta muxuak etxeko guztien partez.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.

Ertzaintza: 943 538 840.

Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.

Udaltzaingoa: 943 300 819.

Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.

Osasun zentroa: 943 006 670.

ODOL EMAILEAK

Ekainak 9, asteartea

18:30-20:30. ANDOAIN

Anbulatorioa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 6 eta igandea 7

PAJARES: Zumea kalea, 20.

943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 6 eta igandea 7

CASTILLA: Urbietta kalea, 7.

'Cuevas'. 943 552 941 Hernani.

**LARRAMENDIREN
EKINTZAK ETA
ETORKIZUNeko
ILDOAK UZTARTU NAHI
DIRA, HITZARMENEAN**

**BAZKUNAK ILDO
ESTRATEGIKOEN
AGIRIA ABUZTURAKO
AURKEZTUKO DIO
ANDOAINGO UDALARI**



andoaINDARRA
euskaraz



Artzaiaenea baserrian bizi den Igor Jauregi "Gartxot", aurkikuntzaren ondoan. AIURRI

Trikuharria topatu dute Onddiko magalean

Trikuharri baten aztarna aurkitu dute Goiburu auzoan, Onddiren magalean, Urnietako lursailetan. Artzaiaenea baserriko Igor Jauregi 'Gartxot' izan da aurkikuntzaren egilea. Udaleko eta Aldundiko teknikariek bertara hurbiltzeko asmoa daukate, hurrengo egunetan

Xabier Lasa URNIETA

Gartxotek azaldu du aurkikuntzaren nondik norakoa: “Onddoetan nenbilela topatu nuen trikuharria, basoaren erdian. Geroztik jakin dut baso langileak laster sartzekoak direla paraje honetan, pinua botatzeko asmoz. Beldurtu egin nintzen makinak bertan egin zezakeen txikizioa pentsatzen hutsarekin, eta berehala jakinarazi nien instituzio desberdinei. Arrisku bizian egon

daiteke gure aurrekoen historia kontatzen duen ondare megalitiko bat, eta erakundeek babesu beharra daukate, Muliskorekin eta gainerako megalitoekin egin duten eran”.

Gartxot ez da aurrehistoriako monumentuetan aditua, baina harri pilari agudo hartu zion traza. “Bazterra pixka bat garbitu egin nuen, eta trikuharriaren kamara begiztatu zitzaidan agudo, nahiz eta gaineko har-

lauza edo tapa falta. Bestela ere, erraz antzeman daiteke harriz inguratuta dagoen aparteko zer edo zer behar duela izan; tumulua osatzen dute harri pila horiek”. Aztarnari argazkiak atera eta adituei bidali zizkien Gartxotek, haien iritzia jasotzeko. “Harlauzak eta tumulua ikusita ez zeukatela zalantzarik erantzun zidaten. Inigo Txintxurreta arkeologoa ere etorri zen, eta tumulua aztertzen ha-



Aurkikuntza Goiburu aldean izan da, Legarralde baserritik ez oso urruti. AIURRI

sita, puntu kardinalak (iparro-rratzaren lau norabide nagusiak, iparra, hegoa, mendebaldea eta sartaldea) markatu ohi dituzten harrietatik hiru identifikatu genituen”.

Izenik ez zaio jarri oraingoz deskubritu berri den trikuharriari. Adituen esku geratuko da izendapena, baina Gartxotek egin du iradokizuna: “ondo legoke megalitoari ‘Jeronimoren trikuharria’ izena jartzea, gogoan hartuz iraganean bailara honetako hainbat baserrietako familetan izen horrek zenbateko predikamentua zeukan, mutiko jaio berriak bataiatzeko orduan”.

Megalitoen aurkikuntzatan ohitzen ari da Gartxot, jada. Izan ere, urtetan abandonatuta egon ostean birpopulatu zuten Arizkuren herrian (Artze bailara, Nafarroa) bizi zela, handik gertu, Zarikietako mendilerroan hain zuzen, harrespil bat aurkitu zuen orain urte batzuk. Artean ezkutatuta egon zen nekropoli aberatsa bistaratzeko bidean jarri zuen aurkikuntza hark. Geroztik, zazpi harrespil, bi menhir edo zutarri eta tumulu bat topatu dituzte arkeologok.

Urumea eta Leitzar, megalitoetan paradisu

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 'Onyi-Mandoegiko Estazio megalitikoak' izeneko eskuorrian –Euskadi.eus webgunean esku-ragarri dago, 'Kultura ondarea' sailean– adierazten denez, Adarramendi-Mandoegiko mendilerroak eta Urumea eta Leitzarango bailarak aberatsak dira megalitoen ondarearen ikuspegitik. Hain zuzen, Leitza, Goizueta, Arano, Berastegi, Elduain, Amasa-Villabona, Andoain eta Urnietako herri lurretan, 140 me-

galito (mairubaratza, trikuharri, tumulo, zista eta cromlech edo harrespil) baino gehiago identifikatu dira.

Onddi-Mandoegiko estazio megalitikoan, 80 megalito (lau trikuharri, bi zista, 72 harrespil eta bi monolito) zeuden identifikatuta orain arte. Pozontarriko lepoa, Aballarri, Otsolepo eta Altxista dira katalogatutako lau trikuharriak, eta beraz, horiei berriki topatu dena gehitu behar ko zaie.

Trikuharrien berezitasuna

Nolanahi ere, trikuharriak beste megalitoetatik bereizi litezke, eta ez bakarrik bere itxura ikusgarriagoa izateagatik. Izan ere, uste da Burdinaren aurrekoa den Brontze arokoak (K.a. 2500tik K.a. 1000 urte arte) direla. Era horretan, trikuharriak gure herriko lehen arkitekturak direla esan ohi da, artzaintza giroko gizakien eraikinak.

Goian aipatu eskuorriak trikuharrien osakera definitzen du: “landu gabeko hainbat harlauzaz edo blokez osatutako hilobi-ganbara bat alde batetik, eta hura erabat estaltzen zuen harri eta lur pilo edo tumulua beste alde batetik. Ganbara barruan, euren hildakoak ehorzten zituzten objektu arruntekin eta eskaintzekin batera”.

Trikuharriak, beste zenbait megalitoren antzera, euskal mitologiako zenbait pertsonaiekin identifikatu izan dira. Kondaira zaharretako izakiek jaurtitako harriekin (Jentilarriak, Sansonarriak, Erroldanarriak...) lotu izan dituzte, maiz.

Altxorrek gordetzen zirela ere pentsatu izan zen, eta ondorioz, altxor-bilatzaile eta arpillatzaileen biktima izan dira mendeetan.